



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2023

LANA ETA ENPLEGUA

1. Erakunde sindikalentzako diru-laguntzak 2023ko ekitaldirako Lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean parte hartzeagatik	2
2. Diru-laguntzak enpresa- eta sindikatu-erakundeei beren jarduera-eremuei dagozkien gaitan elkartutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-planak garatu ditzaten	4
3. Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalei 2022ko ekitaldirako diru-laguntzak	6
4. Gizarte Segurantzaren sisteman ohiko erretiroa hartu aurreko laguntzak Arcelormittal enpresa berregituratzeko prozesuak 2023ko ekitaldirako eragindako langileei	8
5. Gizarte-ekonomiako enpresetan Asistentzia Teknikoa 2023	9
6. Gizarte-ekonomian ekiteko laguntzak 2023	11
7. Elkarrekin Egiturak babestea 2023	14
8. Gizarte-ekonomiako arloan Prestakuntzarako dirulaguntzak 2023	16
9. Gizarte Ekonomiako enpresetan Bazkideak sartzera 2023	19
10. Enpresen arteko Lankidetzak 2023.....	21
11. Gizarte Ekonomiako langileen Partehartzea 2023.....	23
12. Enpresen Gizarte Erantzukizuna (EGE) 2023	25
13. 2023an emakumeen ekintzaitza sustatzeko eta enpresa zein erakundeetako zuzendaritza- organoetan emakumeen talentua sartzeko xedea duten erakundeei dirulaguntzak	27
14. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileen Kidegorako eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko Lan Ikuskatzaileordeen Kidegorako sarbidea prestatzeko laguntzak.....	30



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Erakunde sindikalentzako diru-laguntzak 2023ko ekitaldirako Lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean parte hartzeagatik

2.- Araua

237/2000 DEKRETUA, azaroaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sindikatu Hauteskundeen Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskaritza sortzen dituena.

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 12koa, Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu Sailburuarena. Honen bidez hasiera ematen zaio azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan ezarritako hauteskunde Sindikalen Batzordeko eta Lurralde Batzordeetan Partaide diren, bai eta dekretu honetan Araututako Ikuskaritza-Erregimenean parte hartzen duten sindikatuei ere, sindikatuetzako 2023 urterako diru-laguntzak emateko prozedurari.

Agindua, 2023ko ekainaren 30ekoa, Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko Sailburuarena, zeinaren bidez 2023. urterako diru-laguntzak ematen baitzaizkie Sindikatu Hauteskundeen Batzordea eta lurralde-batzordeak osatzen dituzten erakunde sindikalei, bai eta azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan ezarritako ikuskapen-araubidean parte hartzeagatik ere.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2000/12/0005772a.pdf>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2302592e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/07/2303701e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak erakunde sindikalek Hauteskunde Sindikalen Batzordean eta Lurralde-batzordeetan parte hartzeagatik, bai eta hauteskunde sindikalak kontrolatzeko eta ikuskatzeko eginkizuna betetzeagatik ere, egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Diru-laguntza horietarako guttizko kreditua 763.138,00 eurokoa da, eta banatu da lurralde-batzordeak eta Hauteskunde Sindikalen Batzordea osatzen duten lau erakunde sindikalen artean.



Diru-laguntza horien bidez, lau sindikatuek Euskal Autonomia Erkidegoan 2023an egindako hauteskunde-prozesuak kontrolatzeko eta zaintzeko dituzten eginkizunak garatzeko egiten duten jarduera finantzatu da, bai eta lurralde-batzordeetan eta Sindikatu Hauteskundearen Batzordean parte hartzea ere.

2023. urtean, sindikatu bakoitzak izendatutako pertsonak hauteskunde-prozesuen jarraipena egin dute, langileen eskubideak bermatzeko.

Sindikatu Hauteskundearen Batzordeak 2023. urtearen hasieran egin zuen ohiko bilera. Gainera, ezohiko hainbat bilera egin dira, urtearen gainerakoan planteatu diren gaietan akordioak lortzen saiatzeko Lurralde Batzordeak behar izan den guztietan bildu dira. Hamabost egunean behingo ohiko bilerak normaltasunez egin dira. Bilera horietan hauteskunde-prozesuak, hauteskunde sindikalen aktak eta prozesu horiekin lotuta sortzen diren gorabeherak aztertu dira. Gainera, beharrezkoa izan denean, ezohiko bilerak telematikoki egin dira.

Era berean, sindikatu bakoitzak izendatutako pertsonak hauteskunde-prozesuen jarraipena egin dute, langileen eskubideak bermatzeko, bai aurrez aurre, bai telematikoki edo telefonoz, inguruabarren arabera. Aurrekontu Programan Hauteskunde Sindikalen Batzordeen 60 bilera egitea eta hauteskunde-prozesuen jarraipena egiteko 1.200 jarduketa egitea aurreikusita zegoenez, Hauteskunde Sindikalen Batzordearen jarduera indartzeko helburua bete dela esan daiteke.

Ordezkaritza handieneko sindikatuek lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean presentzia aktiboa izateak eta hauteskunde-prozesuak kontrolatzeko eta zaintzeko lanetan parte hartzeak prozesu horiek eta lortutako emaitzak behar bezala egiten direla bermatzen dute.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Izapidetutako espediente-kopurua	4	4



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Diru-laguntzak enpresa- eta sindikatu-erakundeei beren jarduera-eremuei dagozkien gaietan elkartutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-planak garatu ditzaten

2.- Araua

232/2021 DEKRETUA, azaroaren 9koa, enpresa- eta sindikatu-erakundeentzako dirulaguntzak arautzekoa, beren jarduera-esparruei dagozkien gaietan erakunde horiekin lotutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-planak garatzeko

AGINDUA, 2023ko irailaren 6koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita azaroaren 9ko 232/2021 Dekretuan aurreikusitako laguntzen 2023rako deialdia; dekretu horren bidez, sindikatu- eta enpresa-erakundeei dirulaguntzak ematea arautzen da, beren jarduera-eremuei dagozkien gaietan elkartutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/11/2105870e.pdf>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/09/2304362e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak enpresa- eta sindikatu-erakundeen prestakuntza-planen garapena diruz laguntzera bideratuta daude, haien jarduera-eremuetako berezko gaietan giza baliabideen kualifikazioa hobetzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Finantzatutako zenbatekoa honako hau da: 781.711,00 euro, ordainketa-kredituko 547.198,00 euro 2023ren kargura eta konpromiso-kredituko 234.513,00 euro 2024ko ekitaldirako. Zenbateko hori banatu da erakunde sindikalen eta enpresaburu-elkarte eskatzaileen artean.

Enpresa- eta sindikatu-erakundeen barne-prestakuntzarako programak indartzera, integratzera eta haien koherentzia sustatzera zuzenduta daude laguntzak, baliabide egoki bihurtu daitezzen haien koadro eta langileen kualifikazioa lortzeko, eta horrela egoera soziolaborala hobetzeko ekarpena egin dezaten ere sustatzen da.



6.- Diru-laguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Izapidetutako espediente-kopurua	10	*
Ikastaroak proposatutako helburuetara egokitzen direla kontrolatzea	850	*
Irakasleen egokitasuna eta parte-hartzaileen bertaratzeak gainbegiratzea	24.600	*

* Fitxa hau prestatzeko unean ez dago lortutako emaitzak zehazterik, diruz lagundutako prestakuntza-planak deialdiaren osteko ekitaldiaren martxoaren 30a arte gara baitaitezke; hala, erakunde eskatzaileek bi hilabeteko epea dute egun horretatik hasita amaierako justifikazio-memoria aurkezteko. Hala ere, aurreratu daiteke aurtengo deialdiko 8 erakunde onuradunek aurkeztutako eskabideetan guztira 918 prestakuntza-ekintza proposatzen direla, eta, guztira, 21.443 pertsona prestatu direla 2023ko ekitaldiko deialdira bildu diren planen bidez.



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalei 2022ko ekitaldirako diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko ekainaren 16koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten erakunde sindikalei dirulaguntzak emateko deialdia egiten eta arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/06/2303090e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak erakunde sindikalek berezko xedeen barruan egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko dira, eta erakunde horiek duten ordezkariaren arabera banatzen dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aipatutako aginduan aurreikusitako diru-laguntzen finantzaketa 1.076.791,00 eurokoa da, 861.433,00 eurokoa 2023rako ordainketa-kreditua eta 215.358,00 eurokoa 2024rako konpromiso-kreditua, eta sindikatuen artean banatu da, ordezkariaren arabera.

Hainbat jarduera ordaindu dira; horietatik, besteak beste, eta jarduera sindikalaren berezko gastuez gain, esparru soziorabileko prestakuntza-jarduerak nabarmendu beharrekoak dira, gehienbat erakundeetako kideei eskainiak. Jarduera sindikalak, zalantzarik gabe, eragin handia du gizartean, bai dagokion esparruagatik, bai barne hartzen duen pertsona sorta zabalagatik. Programa honi dagozkion zuzkidurak erakunde sindikalek berezko xedeen barruan egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko dira, eta erakunde horiek duten ordezkariaren arabera banatzen dira; horrenbestez, azken hori diru-laguntza zehazteko erreferentziako faktorea da, eta horrexek erabakitzen du deialdiaren diru-laguntzak emateko kontsignatutako kredituak banatzeko formula.

Diru-laguntzak 19 erakunde sindikalei eman zaizkie ordezkariaren arabera; halere, nabarmendu beharra dago horiek guztiek 17.230 ordezkari sindikal biltzen dituztela EAEn guztira hautatu diren 17.944tik.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Diruz lagunduko diren erakundeen kopurua	20	19



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte Segurantzaren sisteman ohiko erretiroa hartu aurreko laguntzak Arcelormittal enpresa berregituratzeko prozesuak 2023ko ekitaldirako eragindako langileei

2.- Araua

EBAZPENAK, 2023ko apirilaren 20koak, Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, urtarrilaren 10eko 3/2014 Errege Dekretuan aurreikusitako Gizarte Segurantzaren sistemako erretiro arruntaren aurreko laguntzei buruzkoak, 2023an laguntza horiek jasotzen dituzten langileentzat, Arcelormittal Basque Country Research Centre AIE, Arcelormittal Olaberria-Bergara SLU, Arcelormittal Sestao, SI eta Arcelormittal España SA enpresek eskatuta.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHA Ari Hiperesteka)

Ebazpena ez da EHAAn argitaratzen.

Transferentzien Batzorde Mistoak 2020ko ekainaren 25ean hartutako eta uztailaren 14ko 90/2020 Dekretuaren bidez onartutako akordioan (uztailaren 15eko EHA) bereganatutako eskumena da.

<https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2020/07/14/90/dof/spa/html/webleg00-contfich/es/>

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2014-880

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak berregituratze-prozesuetan dauden langileei arreta ekonomikoa ematera bideratuta daude, urtarrilaren 10eko 3/2014 Errege Dekretuan (urtarrilaren 29ko BOE) ezarritakoaren arabera.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Kredituaren zenbatekoa 400.000 eurokoa da, baina azken zenbatekoa 348.044,28 eurokoa izan zen, eta langile onuradunen kopuruaren arabera banatu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Izapidetutako espediente-kopurua	29	29



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte-ekonomiako enpresetan Asistentzia Teknikoa 2023

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko ekainaren 14koa, Jaurlearitzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskadiko Gizarte Ekonomiako enpresetan asistentzia tekniko emateko laguntzen deialdirako oinarriak eta horren deialdia egiten baita 2023. urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperresteka).

Baldintzak erregulatzen dituen Arauak deialdia darama.

AGINDUA, 2023ko ekainaren 14koa, Jaurlearitzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskadiko Gizarte Ekonomiako enpresetan asistentzia tekniko emateko laguntzen deialdirako oinarriak eta horren deialdia egiten baita 2023. urterako.

Entitate onuraduneko zerrenda EHAA-an argitalpenatuta dago.

EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 8koa, Gizarte Ekonomiaren zuzendaria. Honen bidez argitaratzen da Jaurlearitzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren 2023ko ekainaren 14ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako enpresetan laguntza tekniko emateko dirulaguntzak arautzen dituen eta laguntzetarako deialdia egiten duena).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen ondorioetarako, honako hauek jotzen dira laguntza teknikoko ekintzatat:

- a) Urteko Kudeaketa Plana edo Aginte Koadro Integrala egitea eta ezartzea.
- b) Ordezkaritza handiena duten gizarte-ekonomiako erakundeek alde aurretik behar den azterlan ekonomiko eta finantzarioa egitea, euren erakunde elkartuei bermeak emateko.
- c) Kooperatibek eta lan-sozietateek merkataritza-kudeaketarako berariaz emandako aholkularitza.
- d) Kudeatzailtzari laguntzeko zerbitzu espezializatuak kontratatzea, kudeatzailleen edo zuzendarien egitekoetan laguntzeko, edo kooperatiba eta lan-sozietateetako jardun-arloekin zerikusia duten zerbitzuak
- e) Zailtasunak dituzten enpresak suspertzeko plantzat hartzen diren ekintzak egitea, gomendio zehatzak barnean hartuta enpresaren lehiakortasuna hobetzeko eta, hala badagokio, finantzaketa lortzeko.
- f) Erakundeak eraldatzeko tresna berriak ezartzea.
- g) Gizarte-ekonomiako enpresek digitalizazio eta ingurumen esparruetan dituzten beharren gaineko diagnostiko bat egitea.
- h) Enpresak digitalizatzeko tresnak ezartzea.
- i) Enpresetan ingurumena hobetzeko ekintzak garatzea.



- 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023an lortutako emaitzak: Kudeaketa aurreratuko tresnaren esparruan, 59 dirulaguntza eskaera aurkeztu dira, eta horiei esker 73 kudeaketa-tresna egin eta ezarri ahal izan dira, honela banatuta:

- Merkataritza-kudeaketarako berariazko aholkularitza: 20
- Urteko kudeaketaren Planak / Aginte Koadro Integrala: 16
- Kudeatzerako laguntza: 17
- Zailtasunak dituzten enpresak suspertzeko plana: 14
- Eraldaketarako tresna berriak: 2
- Ingurumen-hobekuntza ezartzea: 1
- Abal eta bermeen sistema indartzeko azterlana: 1

Halaber, gizarte-ekonomiako enpresako elkarte-egitura biei dirulaguntzak eman zaizkie bideragarritasunari buruzko azterlan ekonomiko eta finantzarioak egiteko, haiekin elkartutako entitateei bermeak emateari begira.

Aurrekontu betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 440.000 euroko zenbatekotik, guztira 358.662,50 euroko laguntzak (%81,51) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako kudeaketa-planen kopurua	25	16
Diruz lagundutako aginte-koadro integralen kopurua	20	0
Bermeen azterlana partzialki diruz lagundu zaien enpresen kopurua	10	<i>daturik gabe</i>
Diruz lagundutako merkataritza-kudeaketako aholkularitza-saioen kopurua	5	20
Diruz lagundutako gerentzia-zerbitzuen kopurua	10	17
Diruz lagundutako krisian dauden enpresak suspertzeko planen kopurua	5	14
Diruz lagundutako erakundeak eraldatzeko tresna berrien kopurua	5	2
Ekonomia sozialeko enpresetan ingurumen-iraunkortasunerako diruz lagundutako neurrien kopurua	15	1



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte-ekonomian ekiteko laguntzak 2023

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko uztailaren 27koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira gizarte-ekonomian ekiteko laguntzen deialdirako oinarriak eta laguntza horien deialdia egiten baita 2023. urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Baldintzak erregulatzen dituen Arauak deialdia darama.

AGINDUA, 2023ko uztailaren 27koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira gizarte-ekonomian ekiteko laguntzen deialdirako oinarriak eta laguntza horien deialdia egiten baita 2023. urterako.

Entitate onuraduneko zerrenda EHAA-an argitalpenatuta dago.

EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 30ekoa, Gizarte Ekonomiaren zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2023ko uztailaren 27ko Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun suertau diren enpresen eta entitateen zerrenda (agindu horren bidez onartzen dira gizarte-ekonomian ekiteko laguntzen deialdirako oinarriak eta laguntza horien deialdia egiten baita 2023. urterako).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburu estrategikoak, funtsean, bi dira: batetik, gizarte-ekonomiako enpresa gehiago sortzea, eta, bestetik, lehendik zeudenei eustea, haien inguruan mugitzen den sustapen- eta elkarte-sarea indartuz. Programa honen kontura diruz lagundu daitezkeen jarduerak honako hauek dira:

- 1.- Gizarte-ekonomian espirtu ekintzailea sustatzeko eta gizarte-ekonomian enpresa-kultura zabaltzeko ideia-lehiaketak diseinatzea eta egitea.
- 2.- Gizarte-ekonomiako ereduaren agindu-emaielen sarea optimizatzea eta osatzea, eta tresnak (informazioa eta ezagutza) ematea, ekintzailtza kolektiborako ibilbideetan sartzeko ate izan daitezzen.
- 3.- Gizarte-ekonomiako enpresak eratzea, lehendik dauden enpresa-jarduera duten erakundeak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko kasuak barne.
- 4.- Gizarte-ekonomiako enpresa bat eratzearekin zuzenean lotutako sustapena, ondoren jarraipena eta enpresa-kudeaketan urtebeteko doako aholkularitza barne.
- 5.- Gizarte-ekonomiako enpresa bat sustatzeko asmoz, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterketa egitea, bi arrazoi posibletan oinarrituta: batetik, sozietate anonimo edo mugatu baten egoera



kritikoa; bestetik, langileek zerbitzuak ematen dituzten enpresaren jabetza eskuratzeko, belaunaldi-erreleborik gabe.

6.- Lanbide-heziketa enpresaren xede sozialari dagozkion zereginetan, edo lan-gaikuntza hobetzekoan.

7.- Enpresa-kudeaketako tresnak inplementatzea, langileei horrelako tresnetan prestakuntza ematea barne.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023ko ekitaldian emaitza hauek lortu ziren:

- Guztira 155 eskaera aurkeztu dira programa horretan sartzeko.
- 139 enpresa-proiektuari eman zaie laguntza, 443 enplegu berri sortuz, eta horietatik 150 (% 34) emakumeak ziren.
- Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko 5 entitate sustatzailek garatutako sustapen-jarduerak finantzatu dira.
- Lurralde Sustapen Planifikatuari dagokionez, sustapeneko 4 nodo-entitateren lanari lagundu zaio eskualdeko eremuan.
- 9 bideragarritasun-azterlan egiteko dirulaguntzak eman dira, egoera larrian dauden baltzuak Gizarte Ekonomiako enpresa bilakatzeko.
- Berriki sortu diren eta Lan eta Enplegu Sailak diruz lagundu dituen Gizarte Ekonomiako enpresak sendotzeko lerroari dagokionez, Gizarte Ekonomiako hiru elkarte-erakunderi eman zaie dirulaguntza, bereziki lan elkartuari lotutakoei. Diruz lagundutako jarduerak hauentzat izan dira:
 - o Lanbide-heziketa enpresaren xedea osatzen duten zereginetan edo lan-trebakuntza hobetzeko zereginetan: 20 enpresa izan dira laguntza hauen onuradun.
 - o Enpresa-kudeaketako tresnen ezarpena, era honetako tresnetan langileei eman beharreko prestakuntza barne: bi txosten egiteko dirulaguntzak eman dira.
- Gizarte-ekonomiako enpresak eratzen eta gero sendotzen laguntzeko euskal sare publiko-pribatua sustatzeko eta indartzeko laguntzei dagokionez, hauek dira emaitzak:
 - o Ekintzailtza sustatzeko eta enpresa-kultura zabaltzeko ideia-lehiaketak egitea, Gizarte Ekonomiaren eremuan soilik: bi proiektu aurkeztu dira, eta biek jaso dute laguntza ekonomikoa.
 - o Gizarte Ekonomiaren ereduaren preskriptoreen sarerako ekintzailtza kolektiboa sustatzeko tresna batzuk sortzea: 7 laguntza-tresna egiten lagundu da.

Aurrekontuaren gauzatzea:

	Aurrekontua	Eraitza	%
Ideien lehiaketa	480.000	356.847,7	74,34%
Preskriptoreen sarea			
Planifikatutako lurralde-sustapeneko plan lagunduak			
Kooperatibak eta lan-sozietateak sortzea	2.420.000	2.060.208	85,13%
Diruz lagundutako erakunde sustatzaileak			
Enpresetan egindako bideragarritasun-azterketak			
Eratu berri diren gizarte-ekonomiako enpresak sendotzea	295.000	90.000	30,51%
TOTAL	3.195.000	2.507.055,7	78,47%

Erabilgarritasuna eta eragin soziala: Argi dago dirulaguntzen programa hori oso lagungarria dela gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko, bai kooperatibei dagokienez, bai lan-sozietateei dagokienez. Izan ere, sozietate berriak sortzeko parametroak egonkor mantendu dira azken urteetan, eta enpresa-jardura eta lanpostu berriak sortu dira. Dirulaguntzen Agindu horren barruko gainerako laguntza-lerroek, enpresa berriak eratzeak baino garrantzi txikiagoa izan arren, eraginkortasunari eta efizientziari eutsi diote, Zuzendaritza honen iritziz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikusp.</u>	<u>Eraitza</u>
Sustatutako lehiaketen kopurua	2	2
Planifikatutako lurralde-sustapeneko plan lagunduak	5	4
Lanbideren zentroak bisitatzea eskuliburuekin	10	<i>daturik gabe</i>
Ekimen indibidualak sektoreka bateratzea	3	<i>daturik gabe</i>
Talde pilotu bat sortzea orientazio eta prestakuntza zerbitzuak eskaintzeko	1	<i>daturik gabe</i>
Identifikatutako lurralde-agenteen urteko topaketa	1	<i>daturik gabe</i>
Sortutako kooperatiba eta lan-sozietateen kopurua	150	139
Sortutako Gizarte Ekonomiako enpresetan enplegua sortzea	500	<i>daturik gabe</i>
Diruz lagundutako erakunde sustatzaileen kopurua	4	5
Enpresetan egindako bideragarritasun-azterketen kopurua	5	9
Prestakuntza espezifikoa jaso duten enpresen kopurua	10	<i>daturik gabe</i>
Enpresa-kudeaketa aurreraturako zenbat tresna ahalbidetu diren	15	<i>daturik gabe</i>



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Elkarte Egiturak babestea 2023

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 24koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena. Agindu honen bidez, laguntza-deialdi bat egiteko oinarriak onartu dira elkarte-egiturak finkatzeko EAEko gizarte-ekonomiako enpresa eta erakundeetan, eta deialdia bera ere egiten da 2023. urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperresteka)

Baldintzak erregulatzen dituen Arauak deialdia darama.

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 24koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena. Agindu honen bidez, laguntza-deialdi bat egiteko oinarriak onartu dira elkarte-egiturak finkatzeko EAEko gizarte-ekonomiako enpresa eta erakundeetan, eta deialdia bera ere egiten da 2023. urterako.

Entitate onuraduneko zerrenda EHAA-an argitalpenatuta dago:

EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 8koa, Gizarte Ekonomiaren zuzendariarena. Honen bidez argitaratzen da 2023ko maiatzaren 24ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda (agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte ekonomiako enpresa eta erakundeetan elkarte-egiturak finkatzeko dirulaguntzak arautzen dira, eta 2023. urteko deialdia egin).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza ildo honen helburua honako hau da: nortasun juridiko propioa duten eta interes komunak ordezkatu eta babesteko honako hauek elkartzen dituzten Gizarte Ekonomiako erakundeen elkarte Egiturak finkatzea:

- Lan sozietateak eta lan elkartuko kooperatibak.
- Lan elkartukoez bestelako kooperatibak eta elkarte konfederalak.
- Ekonomia solidarioko elkarteak eta enplegu zentru berezien elkarteak.
- Langile autonomoen sektore arteko erakundeak, gutxienez bi urteko antzintasuna dutenak.

Programa honen kontura emandako laguntzak erakunde onuradunen egitura gastuak finantzatzeko erabiliko dira (langile gastuak eta funtzionamendu arrunteko gastuak, funtsean).



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2023an lortutako kopuruak:

Gizarte Ekonomiari lotutako Euskadiko 8 elkarte Egitura mantentzen lagundu ahal izan da. Zehazki, honako hauek izan dira:

- Lan elkartutako kooperatiben 2 federazio.
- Lan elkartutakoa ez den kooperatiben federazio bat.
- Enplegu-zentro berezien 3 elkarte.
- Langile autonomoekin lotutako elkarte bat.

Aurrekontu betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 685.800 euroko zenbatekotik, guztira 625.853,56 euroko laguntzak (% 91,26) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lan-sozietateen eta lan elkartuko federazioen elkarteen kopurua	2	2
Gizarte-ekonomiako konfederazioen eta bestelako elkarte/federazioen kopurua	2	2
Ekonomia solidarioko elkarteen eta enplegu-zentro berezien kopurua	3	3
Sektoreko langile autonomoen elkarteen kopurua	1	1



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte-ekonomiako arloan Prestakuntzarako dirulaguntzak 2023

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko ekainaren 14koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, gizarte-ekonomiako prestakuntzarako laguntzen deialdirako oinarriak onartzeko eta horien deialdia egiteko 2023. urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Baldintzak erregulatzen dituen Arauak deialdia darama.

AGINDUA, 2023ko ekainaren 14koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, gizarte-ekonomiako prestakuntzarako laguntzen deialdirako oinarriak onartzeko eta horien deialdia egiteko 2023. urterako.

Entitate onuraduneko zerrenda EHAA-an argitalpenatuta dago.

EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 30ekoa, Gizarte Ekonomiaren zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2023ko ekainaren 14ko Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradun suertatu diren enpresen eta entitateen zerrenda (agindu horren bidez onartzen dira Euskadiko Gizarte Ekonomiako enpresetan asistentzia teknikoa emateko laguntzen deialdirako oinarriak, eta horien deialdia egiten da 2023. urterako).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

- 1) Gizarte-ekonomiaren arloko prestakuntzara bideratutako ekintzak –prestakuntza espezifikoa eta desberdindua–, unibertsitate-eremuan, unibertsitate aurreko eremuan edo sozietateen eremuan kooperatibismoari edo lan-sozietateei buruzko hasierako ezagutza lortzeko edo perfektionatzeko edo, oro har, ezagutza horretan gaitzeko
- 2) Unibertsitateen eremuan, ondorengo jarduerak:
 - 2.1. Unitate didaktiko egokiak diseinatu eta prestakuntza-jarduerak sistematizatzea
 - 2.2. Esperientzia pilotuak diseinatzea ikastetxeetan, ikastetxeen beharrianak erantzungo dituen gizarte-ekonomiako prestakuntza-plan bat garatzeko.
